

7.- BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure enpresak gure bezeroekin izan nahi duen harremana konfiantzazko harremana da, haiek jakin dezaten arazoren bat duten bakoitzean edo zerbait behar dutenean gurekin kontu dezaketela, gure esku dagoen guztiarekin lagunduko diegulako.

Bezeroekiko dugun harremana aurrez aurrekoa zein automatizatua izango da, hau da, web orri bat eta bezeroari irekitako sail bat izango ditugu, gure produktuak ikusi eta bezeroarentzako arreta izan dezaten. Bezeroekin bi harreman mota horiek izatearen ideia da gaur egungo adineko jendeak ez dakiela teknologia oso ondo erabiltzen, eta, beraz, gure produktuak erabiltzen dituzten adineko pertsonak arazoren bat balute, gure sailean kontsultatu ahal izango ligukete. Bestalde, gaur egun web orria oso beharrezkoa da, gazteek, baita heldu askok ere, webgunean zalantzak edo arazoak kontsulta ditzaketelako eta beraientzat erosotasun handia delako.

